


Eraikuntzaren kostuek Euskal AEn % 0,4 egin zuten gora 2019ko ekainean, aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearekin alderatuta, kostuek % 1,7 egin zuten gora

Euskal AEn Eraikuntzaren Kostuen Indizeak % 0,4 egin zuen gora 2019ko ekainean, aurreko hilarekin erkatuta, eta hil horretarako urte arteko tasak % 1,7 egin zuen gora, EUSTATEk emandako datuen arabera.



Aurreko hilaren aldean, eskulanaren kostuak ez zuen aldakuntzarik izan (% 0,0) eta lehengaien kostuak % 0,5 egin zuen gora.

Aurtengo ekainean, Eraikuntzaren azpisektoreak % 0,6ko igoera izan du bere lehengaietan, eta Obra Zibilaren azpisektoreak, % 0,3ko igoera. Urte arteko bilakaeran, bi azpisektore horiek ere zeinu bera dute; izan ere, Eraikuntzako lehengaien kostuek % 1,6 egin dute gora, eta Obra Zibilarenek, % 1,0.

Igoera handienak izan dituzten sektoreek kontsumitutako lehengaien prezioen artean, 2019ko ekainean 2018ko ekainaren aldean, nabarmentzekoak dira honako sektore

hauek: *Energia elektrikoa* (% 9,8ko igoera), *Industria ez-metalikoa* (% 4,4ko igoera) eta *Zuraren industria* (% 3,1eko igoera). Ordea, azken hamabi hilabeteotan, beren lehengaien prezioetan murrizketa handienak izan dituzten sektoreak honako hauek izan dira, besteak beste: *Metalurgia* (% 3,9ko beherakada), *Petrolioaren fintzea* (% 2,3ko igoera) eta *Kautxua eta plastikoa* (% 0,2ko beherakada).

EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2019ko Ekaina

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	105,3	0,4	1,7	2,3
Eraikinak	105,2	0,4	1,8	2,2
Obra zibila	105,7	0,2	1,3	2,7
LEHENGAI	105,1	0,5	1,5	2,3
Eraikinak	104,9	0,6	1,6	2,2
Obra zibila	105,6	0,3	1,0	2,9
LAN-ESKUA	106,2	0,0	2,3	2,3

Oinarria 2015=100
 (p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62